

# Arrauna 2020

## EZ BETI BEZALA, BAINA BOGAN

Oarsoaldeko eta Bidasoko zortzi traineruk parte hartuko dute aurten abian izango diren bost arraun ligetan. COVID-19agatik berezia izango da sasoa // I-VIII





San Joan bezperan arraun elkartearen instalazioetan egin zuten arraunlarien aurkezpena Hondarribian. HITZA

*Koronabirusak eragindako krisiak iraun bitartean ezjakintasuna nagusitu den arren, azkenean, denboraldia hasi dute Hondarribiko traineruek A Coruña.*

## Etxeko ergometrotik, itsasora

**-REBEKA RUIZ** Hondarribia  
asi da 2020. urteko arraun denboraldia, eta Hondarribia izango da hiru traineru itsasoratuko dituen Oarsoaldeko eta Bidasoko klub bakarra, hain zuzen, gizonen A (Eusko Label Ligan) eta B ontziak (KAE2 Ligan), eta emakumeena (Euskotren Ligan). A Coruña estreinatuta dira gizonen traineru nagusia eta emakumeena. Lehenek garaipen bat eta azken postu bat ekarri zuten Galiziatik; emakumeek, bi hirugarren postu oso on.

Ligetarako zer nolako aurreikuspenak dituen galdetuta, aur-

tengo denboraldia «berezia» izango dela onartu du Joxemi Elduaie Hondarribia Arraun Elkarteko presidentek. Otsailan jokatu zuten herriko traineruek azken estropada, eta orduetik larunbata arte ez diote lehia gehiagori aurre egin behar izan. Horrek guztiak liga hasierara «referentziarik gabe» iristera eraman ditu berdeak. Jakitun da Elduaie, hala ere, denek egoera bertsuan hasi dituztela ligak, eta beraz, «arretaz» hastea beste aukerarik ez dutela aitortu du.

San Joan bezperan aurkeztu zituen Hondarribiak 2020 denboraldiko arraunlariak. Ezohiko ekitaldian egin zuen, ohitura baitu klubak San Joan suarekin

baterra jendaurrean aurkezpen ekitaldia egiteko. Aurten, ordea, osasun neurriak medio, klubeko kirolari eta kideen aurrean ezagutarazi zituzten, elkartearen instalazioetan bertan aurrera eramandako ekitaldian.

Hondarribiko gizonen A traineruko eskifaiak sei baja izan ditu aurtengo denboraldirako, tartean Gonzalo Carrion, Iñigo Vertiz eta Adrian Gonzalezena, «esperientzia handiko jendea», adierazi du Elduaie. Horren aurrean klubak B traineruko bi kide igo ditu, eta beste klubetako lau arraunlari berri fitxatu ere, zuzendariak esan duenez. «Falta sumatuko ditugu, jende ona zen eta urte asko zeramatzen arrau-

nean, baina berriak ere ilusio handiarekin datoz eta horrek ere badu bere garrantzia», erantsi du presidentek. Emakumeen traineruan lau alta izan dira. Haien helburua izango da iazko sufrimenduak ahaztu, eta adibidez, Kontxan eman zuten maila errepikatzea. Ondo hasi dute as-teburuan Euskotren Liga.

### Noiz itsasoratzeko zain

Aurrendenboraldian buru-belarri murgilduta lanean ari ziren Hondarribiko eskifaiak urte hasieran, eta emaitza onak lortuta gainera. Esaterako, otsailan egindako Hondarribiko XX. Jaitsieran irabazle suertatu zen berdeen gizonen trainerua, eta bos-

garren emakumeena. Bat-batean, hala eta guztiz ere, entrenamenduetako plangintza guztiak bertan behera geratuta, lehorrean gelditu ziren arraunlariak. Areago, ez soilik lehorrean, etxean itxialdian gelditu ziren.

Egun horiek nola bizi izan zitezuten galdetuta, «hasieran nahiko ondo» izan zirela erantzun du Elduaie: «Lehenengo egunak, lehenengo hiru asteak ondo; baina hura luzatzen joan zen, eta gure krisialdiak ere edukitu genituen. Morala eta motibazioa mantentzea ez da erraza izan».

Zentzu horretan, batzuk besteak laguntzen igaro dutela konfinamendua aitortu du zuzendariak: «Momentu txarrak izan ziren. Ez genekien egindako lan horrek guztiak zerbaiterako balio izango ote zuen edo ez». Azkenean, baina, egoerak hobera egiten zuela argi ikusi zuten zuzendaritzako kideek ekaina hasieran: «Hemen gaude, behintzat hasteko, eta espero dut dena ondo joatea».

Aurtengo egoera ezohikoa izango dela aipatu du, era berean, Elduaie. Antolaketa lanean jarri du indarra hondarribiarak, eta azaldu duenez, Traineru Klubaren Elkartea (TKE) bere azpiegituraz arduratu daiteke, «guk ezin dugu hondartza oso bat itxi. Estropadak kanpoan jokatzen dira eta guk ezin dugu itsasoa bera mugatu». Denboraldia nola garatzen den ikusi beharko da haren ustez, «ez da izango ohikoa, baina nahiko normala izango da beste kirolekin alderatuta behintzat».

Hori horrela, iragan urteko denboraldia «amestutakoa» izan zela onartu du Elduaie, baina argi dauka «urtero-urtero kontagailua zeroan» jartzen dela berriro, eta beraz, ez bairik gabe «hasi beharra» dagoela, haren hitzetan joan den urtekoak ez baitu «jaten emango» aurten.

**r Ruiz@hitza.eus**



KAE eta ETE ligetako arraunlariek bihar izango dute lehen estropada Pasaiko uretan. Hibaikaren bi tripulazioak, emakumeena ETE Ligan eta gizonena KAE2 Ligan, dena ematera aterako dira aurten ere.

# Ezohiko egoeran ere, gogor arituko da Hibaika

## -IKERNE ZARATE

Errenteria-orereta

**H**eldu da. Ezohiko, eta COVID-19aren osasun larrialdiak ezarritako joko zelaian, baina KAE eta ETE ligak ere martxan dira. Horien barruan ariko dira aurten ere, hutsik egin gabe, Hibaika Arraun Elkarteko bi tripulazioak: emakumeena ETE Ligan eta gizonena KAE2 Ligan. Pandemiak hankaz gora jarri du bizitza, eta kirolari ere, nola ez, eragin dio. Baina Hibaikako arraunlariak erronkak ondo zehaztuta itzuliko dira uretara. Hala esan dio HITZARI Jon Otegi Errenteriako arraun klubaren presidentek. ETE Ligaren goren amaitu zuten liga errenteriarrek iaz, eta urrats bat aurrera egin nahi dute denboraldi honetan: «Taldea osatuta dago, blokea badago. Gazteek ardua har dezaten da helburua eta Euskotren Ligako kanporaketa jokatzeko».

COVID-19ak baldintzatutako denboraldia izango dela argi du Otegi. «Nahikoa arraroa izan da entrenamendu garaia, pandemiaren larrienean etxean izan dira entrenamendua egiten arraunlariak, eta berriro uretara ateratzeko eta elkarrekin entrenatzeko aukera izan dutenean gogo biziz egin dute. Oraindik ez dakigu nola ibiliko garen, ez gu ez beste klubak ere, osasun larri-

rialdiak denoi eragin digulako, baina uste dugu ondo gaudela, nahikoa txukun gabiltzala eta aurreko urteko emaitzen bueltan ibiliko garela uste dugu», adierazi du.

Euskotren Ligako kanporaketa jokatzeko moduan ikusten du Madalen ontziaren tripulazioa presidentek: «Igo edo ez beste kontu bat da, ez dago soilik gure esku; arraunlariek dena emango dute eta hortik aurrera ikusiko da». Emakumeen traineruan Amaia Gezalak jarraituko du entrenatzaile lanean.

## Gizonek prestatzaile berria

Gizonen tripulazioan blokea osatzea du erronka klubak. «Bloke iraunkorra osatu eta lehiakor aritzea. ahal dela goiko aldean ibiltzen saiatuko gara, baina lehentasuna blokea egitea da, taldea sendotzea».

Aurreko urteetan taldea finkatzeko arazoak izan badituzte ere, aurten taldea badutela gizonek nabarmendu du Otegi, «hori helburuetako bat zen, ziklo berri bat hasia eta urrats hori egin dugu». Gizonen tripulazioak, gainera, entrenatzaile berria du: Imanol Cascante sanpedrotarra. Iaz Hibaikan aritu zen arraunlari Cascante, eta ibilbide zabala du arraun munduan. «Aurten taldea osatu eta entrenatzeko ardua hartu du, eta harekin ziklo berria hasi du Hibaikak. Taldea badago, blokea egiten eta

arraunketa sendotzen ari gara, eta aurrera begira txukun ibiliko garela sinistuta gaude», esan du presidentek.

## COVID-19aren ondorioak

Denentzat, oro har, zalantza garai zabaldu duela COVID-19ak aitortu du Otegi: «Osasun aldean zer gertatuko zen, ekonomia arloan nola eragingo zuen, eta kirolean zer gertatuko, arraun egiterik izango genuen edo ez, airean izan dira». Etenaldi horretan arraunlari bakoitzak etxean egin duela entrenamendua azaldu du Otegi. «Nahikoa txukun, baina zalantza handiekin aritu dira. Uretara itzuli garenean jendea gogo handiz hasi da, eta oso ondo ari da. Jakin bada-kigu etenaldi honek faktura pasako digula, bai guri bai gainontzeko taldeei ere. Egia esan buelta nahiko txukun, gustura eta indarrez egin dugu; orain ikusi behar nola doan denboraldia, edozein unetan edozer gerta daitekeelako», aitortu du Hibaikakoak.

Bihar izango dute Pasaiko uretan lehen estropada KAE1, KAE2 eta ETE ligetako arraunlariek. Hiru ligetan 12 estropada jokatu dituzte, hiru ligetako partaideek batera jokatu dituzte, egoitza eta egun beretan, baina ordutegi ezberdinetan.

Ez dira urtero moduan aterako uretara arraunlariak, aurten higiene eta osasun neurriak de-



Emakumeen traineruaren helburua gora begira jartzea da. HIBAIIKA

rrigorrezkoak dituztelako. Klubari dagokionean, entrenamendurako espazioak desinfektatzen ari dira etengabe, eta maskarak soinean ari dira kirolak bateragarri egiten duenean horien erabilera. Estropadei begira, berriz, talde bakoitzak bere eremua izango du besteekin ez nahasteko eta lehorrean, uretara-tzeko unera arte maskara erabili behar dute, «taldeak 20 lagunetik gorakoak dira eta neurri mordo jarri dituzte osasuna bermatzeko».

## Bazkide kanpaina betean

COVID-19ak osasunari eragin dio, baina hortik harago beste eremuetara ere zabaldu du bere gaitza, ekonomiara adibidez. Kluba ez dagoela egoera estuan esan du Otegi: «Ez dago gaizki,

baina inguruan ditugun laguntzaileen eremua larrituta dago; laguntzak murriztu dira, ez kirolean bakarrik, eremu ia guztietan baiziki». Bazkide kanpaina betean dago Errenteriako kluba. Helburua: Hibaika herrian sustatzea, nahiz Errenteriak eta Hibaikak bat egitea: «Harro eramaten dugu Errenteriaren izena, eta herriak gu harrotasunez ikustea nahi dugu. Kirola eta arrauna bultzatu nahi ditugu».

Zaleak, berriz, agertoki nagusitik kanpo utzi ditu COVID-19ak: «Ezin da jende pilaketarik eman eta nahikoa murriztu dute ikusle kopurua osasuna lehenesteko. Arduraz jokatzeko dagokigu. Estropadak irati bidez edo telebistaz jarraitzea deitzen ditugu zaleak».

izarate@hitza.eus

**rosmi**

**Hibaikako zaleen denda ofiziala**

● Kamixeta, zapi eta bestelakoak gurean ●

Foru plaza, 21 - 943 511 887 - 20100 Errenteria

**Carrefour** GOIERRI-OIARTZUN

**Zure segurtasuna eta higieena** babesteko dauzkagun neurriak AENORek ziurtatutakoak dira

**%100 HIGIENA**  
ZURE EROSKETA  
SEGURUA  
DESINFEKZIOA BERMATUA

**AENOR**  
PROTOCOLO  
FRENTEAL COVID-19  
CARREFOUR

Gure bezeroentzako gelak eta eskularruak ditugu denda osoan

Instalazioak, saskiak eta orgak egunean 3 aldiz desinfektatzen ditugu.

Gure langileek eskularruak eta maskarak erabiltzen dituzte, eta eskuak maiz garbitzen dituzte.

Egunero hartzen diegu temperatura gure langileei.

Segurtasun distantzia bermatzen dugu gure denda guztietan.

Ikusi gure higieena eta segurtasun neurri guztiak. **YouTube**

**JUNTOS** para ayudar



**HONDARRIBIA****Eusko Label Liga**

	ADINA	HERRIA
Manex Alday	30	Hondarribia
Bikendi Alza	27	Hondarribia
Joseba Amuna rriz	41	Hondarribia
Julen Castrillon	30	Hondarribia
Beñat Egiazu	26	Hondarribia
Xabier Etxebeste	40	Zarautz
Galder Ezponda	28	Hondarribia
Julen Fernandez	31	Pasaia
Iñaki Gonzalez	31	Hondarribia
Gaizka Gorostiaga	25	Getaria
Andoni Irazoki	24	Doneztebe
Ander Legazkue	22	Hondarribia
Ion Lizarralde	38	Tolosa
Iker Mariezkurrena	37	Sunbilla
Urko Redondo	33	Orio
Battit Ondikola	26	Donibane Lohizune
Alain Osanbela	35	Donostia
Jokin Sagarazu	38	Hondarribia
Alex Udabe	36	Usurbil
Xabier Velasco	29	Irun

ENTRENATZAILEA: Mikel Orbañanos

**HONDARRIBIA****KAE2 Liga**

	ADINA	HERRIA
Beñat Amunarritz	21	Hondarribia
Beñat Alkain	19	Hondarribia
Lur Alkain	16	Hondarribia
Kepa Altuna	19	Hondarribia
Aitor Alza	51	Irun
Josu Arbelaiz	29	Hondarribia
Patxi Arburua	21	Irun
Gonzalo Bueno	25	Hondarribia
Iker De la Linde	22	Hondarribia
Ibai Camarero	19	Hondarribia
Endika Chans	19	Hendaia
Ioritz Errezola	21	Hondarribia
Urtzi Etxabe	26	Hondarribia
Unai Etxepare	18	Hondarribia
Mikel Garcia	23	Hondarribia
Alejandro Gomez	37	Irun
Eneko Iridoy	19	Hondarribia
Julen Iridoy	31	Hondarribia
Xabier Irigarai	19	Hondarribia
Unai Lekuona	19	Hondarribia
Jon Otaño	22	Pasaia
Jon Pascual	18	Hondarribia
Gorka Sanchez	21	Irun

ENTRENATZAILEA: Asier Puertas

**HONDARRIBIA****Euskotren Liga**

	ADINA	HERRIA
Alexandra Arellano	24	Irun
Ane Bayo	23	Irun
Ane Diaz	20	Hondarribia
Amaia Etxabeguren	24	Errenteria
Irati Gaztelumendi	18	Lezo
Estibaliz Gezala	31	Hondarribia
Irati Hernandez	22	Bilbo
Miren Idarreta	25	Oiartzun
Nerea Itxaso	19	Donostia
Nerea Lopez	40	Pasaia
Ane Mendizabal	23	Hondarribia
Jasone Mitxelena	25	Oiartzun
Itziar Rezola	28	Oiartzun
Ainara Palenzuela	20	Lesaka
Maider Peñalva	20	Gasteiz
Ania Perez	21	Irun
Nerea Perez	22	Tolosa
Nerea Seijo	26	Hondarribia
Cristina Tacu	25	Moldavia

ENTRENATZAILEA: Iker Cortes

**SAN JUAN****KAE1 Liga**

	ADINA	HERRIA
Ion Arbona	21	Pasaia
Kimetz Arbona	17	Pasaia
Iñigo Arraras	37	Pasaia
Imanol Arregi	31	Oiartzun
Anartz Beraza	17	Pasaia
Xabier Fernandez	43	Hondarribia
Aritz Garmendia	30	Pasaia
Igor Gaztañaga	41	Lezo
Arkaitz Goñi	40	Hernani
Aritz Irigoien	19	Oiartzun
Andoni Leunda	46	Villabona
Garikoitz Lopetegi	39	Villabona
Ander Makazaga	22	Pasaia
Francesc Mas	30	Girona
Unai Mitxelena	22	Oiartzun
Oier Mugarza	21	Oiartzun
Imanol Muñoz	24	Hernani
Endika Perez	33	Pasaia
Aritz Rial	24	Pasaia
David Rodriguez	42	Errenteria
David Sainz	35	Donostia
Aitor Sautu	55	Erandio
Aitor Sistiaga	26	Pasaia
Jon Torres	31	Oiartzun
Koldo Urtizberea	33	Pasaia
Jon Ander Zelaiaran	24	Pasaia

ENTRENATZAILEA: Jose Luis Korta

**SAN JUAN****ETE Liga**

	ADINA	HERRIA
Maddi Alkain	18	Aia
Nahia Arraras	18	Pasaia
Rosa Atorrasagasti	18	Orio
Nahikari Azkue	19	Pasaia
Arhane Azkue	17	Orio
Olaia Barriuso	17	Hernani
Kiara Bermudez	18	Pasaia
Maider Etxaniz	20	Oiartzun
Intza Erkizia	17	Orio
Danae Erkis	17	Errenteria
Malen Eskitxabel	18	Pasaia
Leire Franganillo	33	Errenteria
Irati Iñarra	27	Errenteria
Izaskun Iñarra	20	Errenteria
Cecilia Korta	-	Donostia
Uxue Korta	-	Donostia
Arene Lacoste	18	Donostia
Naroa Lizarreta	23	Hernani
Lorea Loinaz	16	Donostia
June Oiartzabal	18	Oiartzun
Amaia Puy	17	Pasaia
Jennifer Rodriguez	17	Orio
Nahia San Argimiro	18	Pasaia
Laida Valderrama	17	Oiartzun
Maider Vazquez	17	Errenteria

ENTRENATZAILEA: Guruzne Aziproz

**SAN PEDRO****KAE1 Liga**

	ADINA	HERRIA
Mikel Arostegi	35	Orio
Beñat Bamio	22	Pasaia
Íosu Beristain	24	Pasaia
Asier Carballeda	40	Pasaia
Unai Del Rio	20	Errenteria
Ander Etxegoien	32	Getaria
Akaitz Jauregi	43	Zaldibia
Jon Jauregi	20	Andoain
Unai Martin	19	Donostia
Imanol Olasagasti	19	Aduna
Gorka Olasagasti	26	Aia
Aitor Portela	22	Errenteria
Jokin Rodriguez	21	Donostia
Mañel Salvarredi	19	Berastegi
Josu San Sebastian	37	Orio
Luis Serra	26	Donostia
Iñigo Tamariz	21	Pasaia
Mikel Txintxurreta	22	Pasaia

ENTRENATZAILEA: Mikel Arostegi

## HIBAIIKA ETE Liga

	ADINA	HERRIA
Uxue Alberdi	22	Hernani
Zuriñe Alberdi	26	Pasaia
Laura Alonso	21	Ferrol
Garazi Arabiotorre	16	Hernani
Maddi Insausti	18	Errenteria
Nerea Irastorza	20	Donostia
Maddi Iriarte	20	Errenteria
Lisa Mancebo	18	Errenteria
Laura Martinez	21	Santa Uxia de Ribeira
June Mikeo	18	Errenteria
Itsaso Murcia	18	Errenteria
Naiara Orobengoa	19	Oiartzun
Jone Pastor	17	Hernani
Izaro Prieto	15	Errenteria
Alejandra Rios	21	A Pobra Do Caramiñal
Uxue Rodriguez	19	Errenteria
Sara Roteta	28	Donostia
Iraide San Martin	31	Zierbena
Saioa Simal	27	Donostia
Inge Ugarte	19	Donostia
Uxue Urrea	20	Iruñea
Laia Urretabizkaia	16	Errenteria
Estitxu Zabala	35	Donostia

ENTRENATZAILEA: Amaia Gezala

## HIBAIIKA KAE2 Liga

	ADINA	HERRIA
Hodei Abaurrea	32	Donostia
Zuriñe Alberdi	26	Pasaia
Jon Alonso	40	Barañain
Danel Aranburu	27	Oiartzun
Ion Arin	27	Oiartzun
Francisco Javier Artola	31	Iruñea
Alex Badiola	26	Errenteria
Aratz Bergara	28	Pasaia
Imanol Cascante	42	Pasaia
Javier Erro	25	Iruñea
Aritz Irigoien	19	Oiartzun
Eneko Izagirre	22	Donostia
Santiago Magariños	36	Iruñea
Christian Martinez	26	Lodosa
Ander Mediavilla	45	Irun
Aitor Mendizabal	39	Lezo
Karlos Mendizabal	45	Lezo
Jon Morillo	21	Errenteria
Igor Muñoz	19	Donostia
Gaizka Ormazabal	37	Lasarte-Oria
Aritz Quintela	17	Errenteria
Aitor Rezola	27	Errenteria
Mikel Sanchez	30	Iruñea
Asier Sanchez	39	Errenteria
Ander Urtaşun	34	Donostia

ENTRENATZAILEA: Imanol Cascante

Maita dezagun ondo

*Querec*  
Egin zaitez hitzakide

**HITZA  
kide**

**Gamon Zumardia**  
943 522 862 • Orereta

*Aupa Orio eta Hibaika!*

**BENTTU  
ARRAINDEGIA  
HELATUÉN  
KANTTUA  
IZOZKI-DENDA**

Domingo Egia 2, Hondarribia  
Tel.: 943 559 881

### Estropaden egutegia

#### UZTAILA

11	Pasaia	KAE1 eta KAE2 ligak
11	Pasaia	ETE Liga
11	Donostia	Eusko Label Liga
11	Donostia	Euskotren Liga
12	Zierbena	Eusko Label Liga
12	Zierbena	Euskotren Liga
18	Getxo	Eusko Label Liga
18	Getxo	Euskotren Liga
19	Getaria	KAE1 eta KAE2 ligak
19	Getaria	ETE Liga
19	Orio	Eusko Label Liga
19	Orio	Euskotren Liga
25	Getaria	KAE1 eta KAE2 ligak
25	Getaria	ETE Liga
25	Bilbo	Eusko Label Liga
25	Bilbo	Euskotren Liga
26	Pasaia	KAE1 eta KAE2 ligak
26	Pasaia	ETE Liga
26	Lekeitio	Eusko Label Liga
26	Lekeitio	Euskotren Liga

#### ABUZTUA

8	Getaria	KAE1 eta KAE2 ligak
8	Getaria	ETE Liga
8	Hondarribia	Eusko Label Liga
8	Hondarribia	Euskotren Liga
9	Getxo	KAE1 eta KAE2 ligak
9	Getxo	ETE Liga
9	Ondarroa	Eusko Label Liga
9	Ondarroa	Euskotren Liga
15	Santander	KAE1 eta KAE2 ligak
15	Santander	ETE Liga
15	Zarautz (1. jard.)	Eusko Label Liga

15	Zarautz (1. jard.)	Euskotren Liga
16	Santander	KAE1 eta KAE2 ligak
16	Santander	ETE Liga
16	Zarautz (2. jard.)	Eusko Label Liga
16	Zarautz (2. jard.)	Euskotren Liga
22	Getxo	KAE1 eta KAE2 ligak
22	Getxo	ETE Liga
22	Santurtzi	Eusko Label Liga
23	Getxo	KAE1 eta KAE2 ligak
23	Getxo	ETE Liga
23	Sestao	Eusko Label Liga
29	Castro Urdiales	KAE1 eta KAE2 ligak
29	Castro Urdiales	ETE Liga
29	Ares	Eusko Label Liga
30	Castro Urdiales	KAE1 eta KAE2 ligak
30	Castro Urdiales	ETE Liga
30	Boiro	Eusko Label Liga

#### IRAILA



2	Donostia (1. jard.)	Kontxako sailkapena
3	Donostia (2. jard.)	Kontxako sailkapena
6	Donostia (1. jard.)	Kontxako Bandera
13	Donostia (2. jard.)	Kontxako Bandera
19	Bermeo	Eusko Label Liga (+play off)
19	Bermeo	Euskotren Liga play off.
20	Portugalete	Eusko Label Liga (+play off)
20	Portugalete	Euskotren Liga play off.

**la coquine**  
Dekorazica eta opari bereziak

Santxoenea 21, Errenteria  
943 905 774 • 610325416

**Lete**  
itzulpenak  
www.lete.net

administrazioa . publizitatea  
liburuak . enpresa

Tel.: 943 515 346 . www.lete.net . lete@lete.net



# VI //

## Arrauna San Pedro

**-OLAIA GERENDIAIN** Pasaia

**K**oronabirusak eragindako etenari beldurrik gabe egin zioten aurre Sanpedrotarra Arraun Elkarteak kideek. Mikel Arostegi entrenatzaileak Hrrzari aitortu dionez, «zorte ona eduki dugu», izan ere, konfinamendua hasi zenean arraunlari bakoitzak etxera ergometro bat eraman ahal izan zuen eta, hortaz, ez diote entrenatzeari utzi.

Bi astean behin entrenatzaileak taldekideekin hitz egiten zuen bakoitzaren egoeraren berri izateko, eta probatxo txikiak egiten zituzten taldea fisikoki nola zegoen ikusteko. «Jendeak kunplitu du. Talde gaztea daukagu, etenaldi aurreko estropadetan lan txukuna egin genuen eta ilusioa piztu zen ekipoan; ilusio horrek asko lagundu digu egoera honi aurre egiteko.»

Ekainaren 2an etxetikirten eta talde entrenamenduei berrekin zieten moreek, fosoan eta gimnasioan praktikak egiten hasiz. Bi gune horietan segurtasun neurriak zaindu behar izan zituzten hasieratik, eta hala jarraitzen dute egun ere: «Musukoa jantzita ibiltzen gara uretara joan bitartean, tenperatura eguneroko hartzen dugu, uneoro ari gara erabilitako materiala-eta desinfektatzen.»

Entrenatzaileak *Libia* uretara



Sanpedrotar arraunlariak, ohiko entrenamendu batean. HITZA

*Moreek ez diote entrenatzeari utzi; arraunlari bakoitzak ergometro bat etxera eraman eta bertan jarraitu dituzte praktikak. Orain, konfinamenduan egindako lana lehian erakusteko irrikatan daude.*

## ‘Libia’-ren helburua: «Arraunaz gozatzea»

berritzuli zeneko eguna (ekainaren 8)a «berezi eta arraro» bezala gogoratzen du; hori bai, gogoak ez ziren falta eta hori giroan hau-

teman zitekeen. Sanpedrotarrek etxean egindako entrenamenduen erritmoak sendo mantendu du taldea, eta hori berehala

antzman zen itsasora bueltatu zirenean. «Dena den, uretan beti ezberdina izaten da, eta gorpuzak nola erantzungo ote zuen

beldurra genuen», azaldu du entrenatzaileak.

Lesioak ekiditeko asmoz uretara buelta lasai hartu zuten San Pedrokoek, entrenatzailearen ustez egunero bertan arraunean aritzeak min hartzeko aukerak areagotu zitzaizkela, eta giharrak berriro ohitzeko beharrezko denbora hartzea ezinbestekoa zen arraunlarien ongizatea bermatu ahal izateko. Hobe gauza bakoitza dagokion denboran egitea, presak ez baitira inoiz lagun kirolarekin harremana duten gaietan.

Moreek faltan bota dute larunbateko estropadaren aurretik (KAEleko lehena da) beste lehiarik ez egotea, euren buruak lehenago lehian ikusi ahal izateko. Dena den, entrenatzaileak indartsu ikusten ditu aurten arraunlariak, eta euren gaztetasuna zein esperientzia oso lagungarriak izango direla ziurtzat dauka: «Estropadan dena ematera joango gara. Ikusi beharko dugu kontrakoak nola dabilzan, baina guk behintzat ehuneko ehuna emango dugu.»

### Helburu berriak

Irabaztea beti da helburu sanpedrotarrentzat, eta hala izango da aurten ere. Hala eta guztiz ere, pandemiak eragindako aparteko egoerak arrauna inoiz baino gehiago balioesteko aukera eman die *Libia*-ko kideei, eta entrenatzaileak behintzat ideia bat argi dauka: «Aurtengo helburu nagusia da arraunaz gozatzea.»

Aurreko urtean mailaz jaistek aurten lasaiago egoteko aukera eman dio taldeari, eta etenaldiak hainbat xede birplanteatzeko denbora eman dio Arostegiri: «Jende gaztea daukat eta haiekin bloke bat eraiki nahi dut. Irabaziz gero, izugarrizko ilusioa egingo digu». KAEleko aurrealde horretan ibiltzeko irmo ahaleginduko dira behintzat sanpedrotarrak.

[ogerendia@hitza.eus](mailto:ogerendia@hitza.eus)

Herriko plaza, 8. 20110 Pasai San Pedro.  
Tel.: 943 39 38 12

Bizente Elizegi, 3  
Orereta-Erreterria  
Tel.: 943 528 176

**Gora Oarsoaldeko  
ARRAUNLARIAK!**

**KEPA DEUN  
ARRANTZALEEN KOFRADIA**

*San Pedro tra ka tra!!!*

San Pedro, 14 / 943 39 63 40 / Faxe: 943 39 63 43 / [admin@kofradiapasajes.com](mailto:admin@kofradiapasajes.com)



—OLAIA GERENDIAIN Pasaia

**C** OVID-19ak eragindako larrialdi egoerak San Juan-Koxtape Arraun Elkartearen jardueraren etena suposatu zuen. Hirugarren fasearen hasierarekin batera (ekainak 8), traineruak uretara bueltatu ahal izan ziren eta, orduz geroztik, buru-belarri ibili dira bai neskak zein mutilak bihar hasiko diren ligak prestatzen.

Koronabirusak denboraldiko egutegia adostea zailteaz gain, arraunlarien prestakuntza ere oztopatu zuela aitortu esan dio Xabier Arraras arraun elkartearen presidentek HITZARI: «Elkarte guztiek bezala, konfinatuta egon behar izan dugu entrenamenduen unerik garrantzitsuenean. Une hori berez gogorra baldin bada, etxean bakarrik egitea are gogorragoa izan da». Hala eta guztiz ere, praktikek aurrera jarraitu zuten eta, Arrarasek ustez, arraunlariak, entrenatzaileekin batera, «lan ederra» egin dute: «Taldea oso lehiakorrek ditugu».

Materiala izan zen, larrialdi egoeraren hasieran behintzat, eragozpenik handiena. Elkartek zuten mutil eta neska bakoitzarentzat ergometro bana, «gehienentzat iritsi ziren, baina beste asko gabe gelditu ziren». Dena den, Arrarasek sorpresa polita jaso zuen arraunlari ohien inplikazioarekin: «Esan beharra dago kanpoko laguntza handia jaso dugula, lehen arraunlari izandakoek euren ergometroak utzi zizkiguten, material gabe gelditu ziren horiei banatu ahal izateko».

Normaltasun berria hurbildu ahala, elkarrekin entrenatzeko aukera izan zuten arraun taldeak, eta arrosen presidentek dienez, taldekideak berriro batu ahal izanak izugarritzko indarra eman zien gazteei. «Ekainaren



Arrosen traineruak igoera postuetatik hurbil egon nahi dute sasoiari zehar. SAN JUAN-KOXTAPE ARRAUN ELKARTEA

*San Juan-Koxtapeko neska eta mutilek ezaugarri berbera partekatzen dute elkarteko presidentearen ustez: «Buru sendo daude eta izugarritzko gogoak dituzte». Bihar hasiko dute sasoiari.*

## Gose dira aurten arrosak

San uretara bueltatu ahal izan zirenean nabaria zen urduritasuna, bi taldeak irrikaz zeuden uretara sartzeko eta etxean egindako ahaleginak elkarrekin trainerura eramateko».

San Juangoak kontzientziatuta daude egoeraren larritasuna-

rekin, eta jakin badakite elkartearen osasun zein segurtasun neurriak betetzen jarraitzea ezinbestekoa dela atzerapauso bat ekiditeko. Kirolariak musukoa jantzita joan behar dute entrenamenduetara, eta elkartera sartu bezain laster temperatura kon-

trola egiten zaie banan-banan egunero. Gainera, ezinbestekotzat jotzen du Arrarasek aldage-lak, komunak eta erabilitako materialak behar bezala desinfektatzea denon segurtasuna bermatu ahal izateko: «Bakoitzak bere eginkizuna dauka eta oraingoan ongi betetzen ari dira. Hori ona da denontzat».

**Aurtengo estropadak**

Ligetara begira inoiz baino gogotsuago daude arraunlari arrosak, baina beldur nagusia lesioak dira presidentearentzat. Etenak ohiko entrenamenduak egitea eragotzi zuen eta beldur dira lesioak egoteko aukera handiagoa izan daitekeelako. Baina arrisku horri aurre egiteko eta arraunlariak lehiarako sasoi berean egongo direla bermatzeko irrimo lanean ari dira entrenatzaileak, «bi taldeak prestakuntza egokia jasotzen ari dira», ziurtatu du Arrarasek.

Koxtapekoen aurtengo indargunea arraunlarien gogoak izango dira, baina nesketan (ETE Ligan) zein mutiletan (KAEI Ligan): «Indarrez berdintsu daude eta gauza bat daukate ona: buruz sendo daudela eta izugarritzko gogoak dituztela». Bi ontzien helburua estropadetan ahalik eta posturik onena lortzea da; iaz mutilak irabazle suertatu ziren denboraldiko azken lehian, eta ildo horretatik jarraitzea da asmoa. Nesken taldeari dagokionez, Bilboko azken estropadan ere lehenak izan ziren, eta nahiz eta talde gaztea izan, prest daude lehen postuetatik borroka egiteko. Iazko lana hobetu nahi dute. «Badakigu gure arerioek zaila jarriko digutela, baina guk gure lana egin behar dugu eta ilusio handia daukagu».

[ogerendia@hitza.eus](mailto:ogerendia@hitza.eus)



Altzibarko industriagunea, 2 Altzibar, Oartzun  
943 49 23 16 . 608 77 14 41 . [www.gruasolalde.com](http://www.gruasolalde.com)

LENTILAK EROSTEAN  
**WILDGO**  
**EGUZKITAKO**  
**BETAURREKOA**  
**OPARI**

Konsumatzailearen informazioa erabiltzeko.



**DONOSTIA**

Jose M<sup>o</sup> Sert 4 - ANTIGUO • Tel.: 943 14 28 17  
C/ Nueva 15 - GROS • Tel.: 943 32 66 49

**ERRETERIA**

Koldo Mitxelena 7 • Tel.: 943 51 78 11

**IRUN**

Mendibil M.G. • Tel.: 943 63 99 01

**multiópticas**

[www.multiópticas.com](http://www.multiópticas.com)   



Udaberrian etxean ergometroarekin, ekainera arte itsasora joateko aukerarik gabe, eta estropaden egutegi laburtua. Aurtengo traineruen sasoiak ohikoak ez diren elementu asko batu ditu.

# Ezohikoa, alde askotatik begiratuta



**COOPERATIVA DE EXPORTADORES DE PESCADO DE GIPUZKOA**

Portu aldea, 1. lonja. administracion@coexpe.es  
Tel.: 943 39 91 60. Faxa: 943 39 68 17

## URKO ETXEBESTE

**A**zken asteetan herritarren hiztegi gehien erabili den hitz-tako bat **ezohiko** da. Arraun sasoiari erreparatuta ere, hitz horrek indarrean jarraituko du uztaile, abuztu eta irailean bederen.

COVID-19 zorritzarrekoak zeharo aldrebestu ditu Oarso Bidasoko arraun elkarten planak. Sasoi aurrekoak, eta sasoi-koak. Etxean erabilitako ergometroak arraun elkar-teetara bueltatu, eta ekainaren hasieran joan ziren uretara entrenatzera arraunlariak. Hau da, hilabete eskas izan dute aurten lehian izango diren Oarso Bidasoko zortzi traineruek taldeak ahal bezala doitzeko.

Ezohikoa izango da aldi berean aurten lehian izango diren bertako traineruen kopurua, zortzi. Iazko kopuruaren alderatuz bat gutxiago dago, San Juan-Koxtapek B ontzia lehorrean utziko duelako.

Eta ohikoak ez direnak ere estropadak izango dira. Eusko Label eta Euskotren Ligak, asko ez, baina murriztagoak izango dira. KAE1, KAE2 eta ETE ligek, aldiz, uztaile eta abuztura mugatuko dute bere bidea orotara hamabi norgehiagoka eginez, denak Pasaiaiko, Getariako, Getxoko, Santanderko eta Castro Urdialeseko eremuetan.

Estropadekin jarraituz, urteko izarrean, Kontxan, aldatetarik izan daitezke. Lehenik eta behin Donostian pentsatzen ari dira banderarako sailkapen estropada bi egunetan egitea, hau da,



San Pedroko arraunlariak, iaz, zaleei eskerrak ematen. HITZA

sailkapen estropadak iraileko lehen igandearen aurretiko asteazken eta ostegunetan egitea, irailaren 2an eta 3an hain zuzen ere. Osasun segurtasun kontuak

daude balizko erabaki horren atzean. Gainera, HITZAK jakin duenez, Kontxako emakumeen estropada luzeagoa izateko aukera mahaiaren gainean dago.

## 177

### OARSO BIDASOKO TRAINERUETAKO ARRAUNLARIAK

Aurtengo traineruen sasoiari Oarso Bidasoko zortzi traineru izango dira lehian: hiru Hondarribikoak, bina San Juan eta Hibaikakoak, eta bestea San Pedrokoa. Horietan aritzeko 177 arraunlari daude izena emanda liga guztietako zerrendetan.

**Oiartzuarrak.** Itsasorik ez izan arren, nabarmentzekoa da arraunlari horietatik guztietatik 16 oiartzuarrak direla.

### Izen handiei agur

Tostetan izango dira hutsuneak. Azken urteetan Oarso Bidasoko arraun elkar-teetan asko eman duten izen ezagun batzuk ez dira ageri traineruetako kirolarien zerrendetan. Horietako bat Elixabete Pescador erreteriarra da, aurten ez du Hibaikan arraun egingo ibilbide oparo baten ondoren.

Urko Kortajarena pasaitarrak etena egingo du Pasaiaiko arraun elkar-te guztietan bere kalitatea eta ahalegina azaldu ondoren. Hondarribian, berriz, Gonzalo Carrion, Iñigo Vertiz eta Adrian Gonzalez ez dira tostetan egongo. Ezohikoa izango da ere haien arraunkeraz ez gozatzea.

**LIMPIEZAS TXINDOKI 2001**

**Garbiketaren profesionalak**

943 260 860

110 poligonoa - Txatxamendi 43. 20100 Lezo  
info@limpiezastxindoki.com · www.limpiezastxindoki.com

**SANPEDROTARRA ARRAUN ELKARTEA**

San Pedro kalea 30  
20110 PASAI SAN PEDRO  
943 39 90 10

**ITXASKI-MUGALDE S.L.**

Zatoz gure lanpernak dastatzera!

Gabarrari 5, 20280 Hondarribia  
Tel.: 943 64 73 14 · Faxa: 943 64 73 31